



MEMORIA 2018

garabide
era bide

EUSKALDUNAK


KURDUAK
KURDISTAN

YUKATANGO
MAYAK
MEXIKO

KAQCHIKELAK
GUATEMALA

HUNI KUINAK
BRASIL

MAPUTXEA
K
WALLMAPU



Aurkibidea

Sarrera	4
Formazio jarduera	5
Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa IV	5
Adituaren moduluak, gaiak eta irakasleen taula	7
Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta	11
Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Yucatango Maia Komunitatean Aplikatuta	13
Tokian Tokiko Proiektuak: Bidaideak 2018	15
Amazighak (Aljeria eta Maroko)	15
Kaqchikelak (Guatemala)	16
Kitxuak (Ekuador)	17
Maputxeak (Wallmapu)	18
Nawatak (Mexiko)	19
Komunikabideetan oihartzuna	20
GARABIDEn kanal propioak	20
Kanpo komunikabideak	23
Balantze ekonomikoa	24
Erakunde babesle eta laguntzaileak	25

Sarrera

GARABIDErentzat **2018.a urte oparoa** izan da. Ohiko dinamikari jarraipena eman dio eta badira arrakastatsuak izan diren ekimen berriak. Honakoak dira 2018ko jardunari dagokionez azpimarratu nahi ditugun puntuak:

Ikuspuntu kuantitatibo batetik aipa daitezkeen eta memoria honetan jasotzen diren **zifrak esanguratsuak dira: 3 hilabetez** gauzatu den eta **21 partaide** izan dituen Aditu Ikastaroa, Adituaren inguruan egin diren **26 irteera diktiko eta beste 26 sentsibilizazio ekintza**; Garabidek izan dituen **27 entitate babesle eta 61 entitate laguntzaileak**; komunikazioari dagokionez, komunikazio kanal propioak indartzearekin batera, **99 komunikabide-tan** izan dituen, gutxienez, **207 inpaktuak...**

Datuok esanguratsuak badira ere, azterketa kualitatiboa eginez, honakoak nabarmendu ditzakegu:

Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak **Diplomatura Yucatango maia Komunitatean eta Kolonbiako Cauca burutu dira** lehen aldiz. Urrats kualitatibo esanguratsua da hizkuntza komunitateetako talde zabalekin lana egitea.

Mexikoko **Tosepan talde kooperatiboan**, Emun koopera-

tibarekin elkarlanean, hizkuntza plan integrala jarri da abian, egoeraren diagnostikoa eta planaren diseinua eginez. Guk dakigula era honetako lehen hizkuntza plan integrala da Tosepanekoa Euskal Herritik kanpo.

Garabideren proiektuak zabaldu eta kontsolidatu egin dira azken urteotan eta egoera berriari erantzungo dion **antolaketa eta funtzionamendua mahai gainean dauden gaiak dira**. 2019an atal horietan urrats nabarmenak egitea dugu erronka.

Eta sarrerarekin bukatzeko, eskerrak ematea dagokigu bazkide, entitate babesle, entitate laguntzaile eta norbanako boluntario guztiei. Izan ere, zuek egiten duzue posible memoria honetan jasotzen den dinamika guztia.



Artoz egindako txakana (Andeetako gurutzea) eta "kitxuaz bizi" leloa

Formazio jarduera

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa IV



Areto dotorean EHuko ikasleekin Gasteizen egindako sentsibilizazio saioa.

Laugarrenetik antolatu dugu aurten Garabideren harribitxia den "Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa". Beste behin Hego eta Ertamerika, Ipar Afrika eta Kurdis-tango hizkuntza eragileak batu ditugu Euskal Herrian (aurten Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean); 12 hizkuntza gutxitutako 21 aktibista, hain zuzen ere. 400 ordu baino gehiagoko formazioa jaso dute eta hiru ardatzen inguruan

- egituratu da ikastaroa: hizkuntzaren biziberri-
- tzearen inguruko klase teorikoak, euskalgintzako
- erakundeetara bisita didaktikoak eta espe-
- rientziak elkartrukatzeko herriz herrikako bira.



Adituan di-da pasa dira teoritik praktikara

Irailaren 24a eta abenduaren 14a bitartean Euskal Herrian barrena ibili gara hainbat mahai-inguru, solasaldi, proiektzio eta erakusketa antolatu ditugulako. Aurten, bereziki nabarmentzekoa izan da urriaren 19an Bilbao Berrikuntza Faktorian komunitate desberdinetako

ekintzaile emakumeekin eta Euskal Herrian feminismoaren eta hizkuntzaren inguruan dabilzan eragileekin antolatu genuen **"AHALDUNTZEN: HIZKUNTZA ETA GENEROA" jardunaldia**. Adituaren edizio honetan, generoa eta hizkuntzaren arteko lotura eta igurtzien azterketa eta hausnarketari garrantzi berezia eman nahi izan diogu eta ahalegin horren baitan kokatu dugu jardunaldi hori, baita Aditura etorri aurretik partaide emakumeek beraien komunitateetan egin dituzten generoa eta hizkuntza gurutza-tzen diren gogoeta eta praktiken

- inguruko tailerrak ere. Hizkuntza biziberritzearen eta genero ahalduntzearen arteko loturez jardun genuen eta zapalkuntzak anitzak diren heinean, ahalduntzeak elkarloturik dauden ideia erabili genuen bueltaka.

AHALDUNTZEN:
HIZKUNTZA ETA GENEROA

Zapalkuntza anitzen inguruan hausnartzeko mahai-ingurua

Kazetaria eta antropologoa **Lorea Agirre**
Aktibista kurdua **Suna Altun**
Yucantago maia aktibista (Mexiko) **Yazmin Novelo**
Soziolinguista **Txerra Rodriguez**
Dinamizatzailea **Iraitz Agirre**

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania (interpretazioa eskainiko da bi hizkuntzetan)

Bilbon, urriak 19, ostirala: 17:00-19:00
Mondragon Unibertsitatearen **Bilbao Berrikuntza Faktorian**

Antolatzailea: **garabide**
Babesleak: **Mondragon Unibertsitatea**, **GARAPENERAKO LANBIDEZAREN EUSKAL AGENTZIA**, **AGENCIA GOSCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO**, **Itzazingo Udala**

Mahai-ingurua iragartzeko kartela

Udazkenean zehar Adituko partaideek jaso duten **formazioa 17 modulutan** banatu da, horren **ostean 3 espezializazioen** artean aukeratu ahal izan dute eta, azkenik, **ikastaro amaierako proiektua** burutu.

Adituaren moduluak, gaiak eta irakasleen taula

	IZENBURUA	IRAKASLEAK
1 Modulua	Hizkuntza Ekologia	Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
2 Modulua	Soziolinguistika	Iñaki Arruti (Lasarte-Oriako euskara teknikaria)
3 Modulua	Hizkuntza Eta Generoa	Iraitz Agirre
4 Modulua	Corpusa	Andoni Barreña (Garabide) Josu Goikoetxea eta Maxux Aranzabe (IXA taldea)
5 Modulua	Hizkuntza Transmisioa Eta Aisialdia	Itziar Idiazabal (Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra) Eneko Barberena (Txatxilipurdi) Jasone Urruzola (Urtxintza)
6 Modulua	Hezkuntza	Andoni Barreña (Garabide)
7 Modulua	Hedabideak	Aitor Zuberogoitia (MU-HUHEZI)
8 Modulua	Kulturgintza	Mikel Etxaburu (MU-HUHEZI) Mikel Mendizabal (EASO Politeknikoa) Pirritx eta Porrotx
9 Modulua	Gizarte Aktibazioa	Marta Igoa (Nafarroa Oinez) Asier Amondo (AEK-Korrika) Pello Jauregi (Euskaraldia)

10 Modulua	Helduen Irakaskuntza Eta Alfabetizazioa	Mari Paz Martin (Beasaingo Euskaltegia) Jon Antxia (Beasaingo Euskaltegia)
11 Modulua	Lan Mundua	Juan Luis Arexolaleiba (Garabide) Txema Abarrategi (Garabide)
12 Modulua	Eragileen Mapa	Andoni Barreña (Garabide) Julen Larrañaga (Garabide)
13 Modulua	Hizkuntza Plangintza	Karmele Perez (MU-HUHEZI) Patxi Baztarrika
14 Modulua	Estrategien Sintesia	Andoni Barreña (Garabide) Suna Altun (Garabide) Julen Larrañaga (Garabide)
15 Modulua	Telp Tailerra	Ainhoa Lasa (EMUN)
16 Modulua	Kudeaketa	Mirene Zufiaurre (Lanki)
17 Modulua	Ikt	Ander Bolibar (MU-HUHEZI) Idoia Etxeberria (Ahotsak.eus) Galder Gonzalez (Wikipedia)

Saio osagarriak:

Hegoko esperientziak	(Adituko parte hartzaileak)
Katalanaren biziberritze prozesua: antzekotasun eta ezberdintasunak	Elena Ramirez Ramon Armengol
Euskaingintzaren Balioak	Leire Cancio (Elhuyar)

3 espezializazio (bat aukeratu dute)

18a Modulua	Hezkuntza	Rosa Elizburu (Ibaizabal Ikastola) Iñaki Gonzalez (Arizmendi Ikastola) Arantza Lejarreta Marta Igarza
18b Modulua	Helduen irakaskuntza eta alfabetizazioa	Ane Ortega (BAM) Arkaitz Zarraga
18c Modulua	Diagnosia, Planifikazioa eta Sentsibilizazioa	Beñat Garaio, Viviana Gonzalez, Iñaki Martinez de Luna

Ikastaro bukaerako proiektua

19 Modulua	Proiektuaren aspektu formalen aurkezpena	(Aritu Ikastaroko Batzorde Akademikoko kideak)
20 Modulua	Proiektua landu (idatzi, tutoretzak egin eta aurkeztu)	(ikasle bakoitzak tutore bat izan du eta epaimahaiaren aurrean defentsa egin du)

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta

Ekaina eta abuztua bitarteko asteburutan gauzatu dugu Cauca (Kolonbia) nasa herriari egokitutako "Hizkuntza Biziberritzeko Estrategietan diplomatura". GARABIDE Elkarteak CECIDICEkin (Centro de Educación, Capacitación e Investigación para el Desarrollo Integral de la Comunidad) batera antolatutako formazio hau **10 astez** burutu da eta nasa yuwe hizkuntza biziberritzearen alde jarduten duten **80 ekin-tzaile nasek 160 orduko formazioa jaso dute.**

GARABIDEk Euskal Herritik kanpo antolatzen duen **dimentsio horretako lehen diplomatura da** eta nasa komunitateak berak identifikatutako formazio beharrei erantzuten die.

Aditu Ikastaroaren 4 edizioetan izan dira ordezkari nasak Euskal Herrian baina begarrezkotzat jotzen zuten formazio saio bat beraien lurraldean bertan antolatzea eragile gehiagorengana iristeko. Izan ere, Kolonbiako Cauca eskualdean nasa **herria biziberritze kultural eta linguistikoan murgilduta dabil bete-betean**, eta herri-identitatea sendotuta aurre egin nahi diote jendarte indigenek pairatu izan dituzten marjinazioari, pobrezari eta deserrotze-egoerei. Testuinguru horretan kokatzen da Toribio (Cauca) inguruko komunitate nasako eragile kulturalen formazio estrategikoaren premia, Garabideri helarazi zaiona.

Ikasleak fin aritu dira Caucako diplomaturan





Diplomaturan parte hartu dutenen familia argazkia

Esan bezala, ekainaren 9a eta abuztuaren 12a bitartean burutu da ikastaroa. **8 modulutan** banatua egon da eta hizkuntzaren biziberri-tzearen alorreko adar desberdinak jorratu dira: soziolinguistika, kultur ekoizpenak, alfabetizazioa, helduei hizkuntza irakasteko metodologia, hizkuntza eta generoa, hegoko esperientziak, hezkuntza eta hizkuntza plangintza. Formazio teorikoaren ostean material didaktikoa egiteko lan taldeak sortu dira, ondoren praktikan erabiliko direnak eskola edo “nasa yuwe-tegietan” esaterako. Irakasle lanetan aritu dira Aditu

Ikastarotatik pasatako nasak, eta baita Abya Yalako beste hizkuntza gutxituetako eta Euskal Herriko adituak ere. Eskolak nasa yuwez izan dira, irakaslea bertakoa ez zenean izan ezik.

Diplomatura honek sekulako ikusmina sortu du nasen artean. **Aukera historikotzat jo dute** formazio hau hizkuntzaren biziberri-tzearen alde pauso sendoak ematen jarraitzeko. **GARABIDErentzat ere inflexio puntu bat ekarri du** ikastaro honek, itsasoz bestalde antolaturiko lehen formazio proiektu luzea izanik.

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Yucatango Maia Komunitatean Aplikatuta

Abuztua eta abendua bitartean burutu da Yucatango maia herriaren diplomatura, eta amaiera emango zaio 2019ko otsailean gauzatu den azken modulu batekin. Kolonbian gertatu bezala Yucatanen (Mexiko) antolatu dugun dimentsio horretako lehen formazio saio intentsiboa da honakoa, eragile gehiagorengana iristeko helburuarekin garatu duguna han bertan. Hasiera batean, Yucatango maia komunitatea-

● rekin eta INALI (Instituto nacional de lenguas
● indígenas) erakundearekin batera antolatu
● behar genuen, baina Mexikon bizitako krisi
● politiko bat medio, erakundea desegin egin
● da. Alabaina, bertako eragileen gogo eta irmo-
● tasunari esker, aurrera jarraitu ahal izan dugu
● diplomaturarekin eta INALIren testigua xKu-
● samo'ob idazle maien kolektiboak hartu du.



Yukatango maiek egindako diplomaturaren une bat.

Zazpi modulutan banatua egon da 90 ordu presentzialeko formazioa: hizkuntzen desagertze eta biziberritze dinamikak; euskararen esperientzia; corpora, heziketa eta familia; hedabideak eta ekoizpen kulturala; yucatango maiaren diagnostikoa; yucatango maia hizkuntza biziberritzeko proiektuaren diseinua; diplomatu amaierako proiektua. Campeche, Quintana Roo eta Belizeko **30 eragile maia izan dira parte-hartzaileak** eta irakasle lanetan aurrez Aditu Ikastaroan formatutako aktibista maiez gain (Yazmin Novelo, Elisa Charrea, Daniela Cano eta Marcos Pech) Euskal Herriko hainbat adituk hartu dute parte

(Joanes Igeregi, Jon Sarasua eta Iñaki Arruti).

Gainera, **Beasaingo alkate den Aitor Aldasorok ere ikastaroan parte hartu zuen** eta lan bidaiaren baitan instituzioekiko harremanak landu zituen hizkuntza lankide-tzaren alorrean.

Lehen esan bezala diplomatura 2019ko otsailean amaituko da. Hala ere, orain artekoarekin eta eragile maiek beraiek egin duten balorazio dokumentuari erreparatuta, esan dezakegu diplomaturari esker aldaketak eman direla partaide askoren jarreraren hizkuntzak identitatearen berreskurapenean jokatzeko duen paper zentralaren inguruan.



Beasaingo alkate Aitor Aldasoro eta Joanes Igerabide garabidetarra Méridako alkatearekin eta beste udal ordezkari batzuekin.

Tokian Tokiko Proiektuak: Bidaideak 2018

Amazighak (Aljeria eta Maroko)

2018a urte garrantzitsua izan da, izan ere, amazighekiko harremanean saskondu eta **hurrengo urteetarako elkarlana bideratzeko oinarri sendoa** ezarri dugu.

Rifeko amazighekiko elkarlanetik abiatu gara, eta hor badugu emaitza zehatza: Miloudha El Hankarik **2019an tarifita karaktere latindarrez irakasteko ikastaroa** diseinatu du eta hura gauzatzeko bitartekoak ziurtatu. Gogoan izan behar dugu 2011tik tamazigha hizkuntza ofiziala dela Maroko osoan eta hain zuzen ere bertako

hiru aldaerentzat balioko lukeen estandarizaziorik ezak eta tfinag alfabetoaren aldeko hautuak duda handiak sortu dituela gaur egun arte. Ofizialtasuna edukiz betetzeko aldarriarekin bat datoz kultur eragile gehientsuenek abian jarri eta jarri nahi dituzten ekimenak.

- Marokoko mugak gaindituz kabiliarrekiko
- loturak ere estutu dira eta horri esker **prest utzi**
- **dugu 2019rako Tangerreko Jardunaldia**, zeinetan urte hasieran, hizkuntza biziberritzearen
- inguruan diharduen eragile-sare zabala batuz,
- elkarri egin geniezazkiokeen ekarpen estrategi-
- koari begira, **euskara, kabiliera eta tarifitaren**
- **esperientziak partekatu(ko)** diren. Koordinazio-
- lan honetan jatorri kabiliarreko Mohand Timal-
- tine adituaren laguntza funtsezkoa izan da.



Irailean Massinissa elkartearen egoitzan Tangerren urtarileko Jardunaldia prestatzeko egindako bilera.

Kaqchikelak (Guatemala)

Pasa berri den urte honetan ere **Ruk'u'x Qatinamit eskola-sarea izan dugu bidaide eta solaskide nagusi**. Aurreko urteetan ekindako bideari eutsi zaio, bi ardatz nagusi landuz. Batetik, irakasleen formazioa areagotu da, oraingo honetan proiektukako irakaskuntzari eta material didaktikoaren sorkuntzari buruzko ikastaroa emanda eta, bestetik, proiektukako pedagogia hori lehenetsita, eskola-materiala ekoitzi da. Bi pausuokin sareaosatzen duten lau eskoletako murgiltze ereduak indartu da eta duela ez horrenbeste kaqchikela kaqchikelez irakastea bazen erronka, egun bestelako **ikasgai guztiak kaqchikelez** eman ahal izatea da xedea. Eta denetan nabari da aurrerapena baina lau eskoletako batean behintzat ia

hamasei urtetarainoko zikloa osatzen ari da ikastordu gehientsuenak kaqchikelez emanez.

Material didaktiko berriarekin bilduma esanguratsua osatzen ari da, ekoizpen pro-pioko liburutegia mardulduz eta horrek hel-dutasuna dakarkio kaqchikelak hezkuntza arloan duen proiektu bakarrenetarikoari.

Baina belaunaldi berriekin eskoletan

egiten ari den lana indartzearekin batera, Garabidek lankidetzaz bide berriak urratu ditu 2018an, eta hala maisu-maistrentzako ikaske-tak eskaintzen dituen Unibertsitate Kaqchi-keleko ordezkaria, Miguel Angel Oxlej, gure artean izan da laugarren Aditu Ikastaroan eta **Wikipedia kaqchikelez osatzeko proiektua** diseinatu du. Proiektzio zabaleko egitasmoa.



Belaunaldi berriak kaqchikelaren lekukoa hartzeko prest.

Era berean, udaran Ruk'u'xeko emakumeek egin zituzten genero-tailerrek **jatorrizko hizkuntzen biziberritzearen eta emakumeen ahaldundutzearen artean dauden zubiak, sinergiak eta elkar eragiteko aukerak aztertzen**. Bide interesgarria, zinez, urratu-tako hau, baratz oparora eramango gaituena.

Kitxuak (Ekuador)

2018a Ekuadorreko kitxuekiko lankidetza Imbaburan fokatu dugula esan dezakegu. Era-kunde lagunetik harremanak eta elkar-lana etengabe, Imbaburan eta Otavalo aldean zentratu da garabidetar-ron jardura pasa den urtean.

Eta lan horren emaitzak bistaratzen ari dira. Urte hasie-ran Esmeraldas-en, aktibista eta eragile kitxuak bertan batuta, egindako jardunaldi-tik eta gogoeta estra-tegikotik sortu baitzen

Sisariy erakundea, kitxua-


ren biziberritzean diharduten elkar-teen halako federazioa litzatekeena.

Sisariy hasi da Imbaburako udalerrietarako plan estrate-gikoaren lanketa gida-tzen eta abian diren ekimenei (Radio Illu-man, kitxua eskolak nagusientzat, eremu digitaleko erabilerara bi-deratuak, ekoizpen kulturala...), norabide strategikoa ekarriko dien koordinazioa eskaintzeaz

gain, eskola kitxua bezalako erronka berriak jorratzen hasita daude. **Aktibista-sare zabala** bada lanotarako eta Sisariy dute abaro.

Esaterako, Sisa Anrangok kitxuaren irakaskuntzarako lantalde pedagogikoa abia-razteko proiektuarekin eta Ximena Floresek irrati bidez kitxua irakastekoarekin atera dira Hizkuntza Biziberritzeko Estra-

tegiak Aditu Ikastaroa-ren laugarren ediziotik. Hiru bokal ditu kitxuak, ez du gehiagoren beha-



Sisariy elkartearen logo dotorea



Sisariyko partaideak bileran

Maputxeak (Wallmapu)

Pasa den urteak erabat finkatu du Mapuzuguletuañ erakundea. Une honetan mapuzugunaren biziberritzean ageri den agenterik indartsuena eta erreferentziazkoena dugu.

Mapuzuguletuañ nagusien alfabetizazioan eta irakaskuntza ari den elkartea da, sortze beretik Garabiderekin lankidetzan dabilena.

Askotarikoak izanik hizkuntza-biziberritzeak dituen premiak gaitasun osoko hiztun berriak sortu eta haientzako erabilera guneak egituratzea dira Mapuzuguletuañeko eragile gazteek lehenetsitakoak. Bide

horretan irakasleen prestakuntza funtsezkoa da eta alor horretan erabili beharreko metodologia eta materiala dira 2018an gogotik landu direnak.

Aurten Bai Fundazioarekin elkarlanean, lehenik erakunde honetako adituak bertatik bertara bizi izan zuen Mapuzuguletuañek Kurarrewen antolatutako barnetegia eta haien balorazioa, indarguneak eta hobe zitezkeenak, partekatu genuen antolatzaileen lantalde teknikoarekin. Lankidetzaz-bidaia honek itzulitza ere izan zuen eta uztailean hiru ordezkari

- maputxe etorri ziren Zornotzako Barnetegira
- bertako dinamika in situ ezagutu eta A1 profila
- erdiesteko materiala jorratzera. HIGA jardunaldietan (Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen Topaketan) parte-hartzearekin biribildu zuten
- hilabeteko egonaldia. Truke eta esperientzia aberatsa inondik ere. Barnetegiaren dina-



Mapuzugun barnetegiaren amaierako argazkian...gazteak nagusi!

- mikak sendotu ederra hartu du Wallmapun.

- Eta Aditu Ikastaro IVan ere bitzu izan dira ordezkari maputxeak. Sergio Marinao Mapuzuguletuañeko kideak A1, A2 eta B1 mailako unitate didaktikoen ekoizpena bideratu du bere proiektua. Eta, hegorago oraindik, Panguipulliko Koz-Koz Parlamentu Maputxeko Ana Llaupi umeei aurre-eskolan mapuzuguna irakasteko egitasmotan da. Ea laster dugu eskola maputxea abian.

Nawatak (Mexiko)

Ezin ziurtatuko dugu erabat lehen aldia denik, baina **susmoa dugu ez direla asko izango Euskal Herritik kanpo bere hizkuntza-plana, jatorrizkoa biziberritzekoa, abian jarri duten enpresak**. Eta hori da 1980an sortutako Tosepan Titataniske (nahuatlez Batera Garaile) talde kooperatiboaren kasua.



Euskal Herritik kanpo Mexikoko Pueblan hizkuntza plana martxan jarri da.

Emun kooperatibak eta Garabidek hartzartutako elkarlanean oinarrituta diseinatu da talde kooperatiboko Nawatl Plana. Gaur egun abian da kooperatibako plan orokorra eta beste hiru gunetan (eskola, banketxea eta formazio zentroa) ere inplementatzen ari da.

Txerra Rodriguez (Emun) eta Juan Luis Arexolaleiba, Gatxi, (Garabide) apirilean izan ziren Cuetzalanen bertako lagun nawatlekin egoeraren diagnostia egin eta Plana

diseinatzeko. Ordukoan, besteak beste, **erne zen Talde Motorra**, plangintza honen ardura duena eta ordutik ari da **koordinatzaile lanetan Lizbeth Sanchez**. Lizbethek bere formazioa osatu zuen Aditu Ikastarora etorrita udazkenean eta Euskal Herrian euskara planetan murgilduta dauden hainbat enpresetako esperientziak bertatik bertara ezagutu eta baloratu ahal izan zituen. Orain euskaldunok gara nawatlen herritik datozen berriei adi behar dugunok, seguru primeran etorriko zaizkigula hango molde eta jardunbideak.

Micaela Garrido ere izan zen gure artean Aditu Ikastaroan eta murgiltze ereduko Tosepanen eskolako lehen hezkuntzan irakurketa-idazketak nawatlez bideratzeko proiektua landu zuen.

Inoiz entzun dugun gisan, Tosepan ez da kooperatiba bat gehiago **Tosepan bizitzeko modua ere bada. Eta nahuatlez bizi nahi du.**



Tosepan-eko kideak finean, Lizbeth koordinatzailearen agindupean.

Komunikabideetan oihartzuna

Sarreraren azpimarratu dugun bezala, **ahalegin berezia egin dugu** GARABIDEn jardunaren inguruko komunikazioa areagotzeko eta ahalegin horrek, datozen lerrotan ikus daitekeen bezala, **emaitza neurgarriak eman ditu**.

GARABIDEn kanal propioak



Gure webgunea www.garabide.eus

- **“Kolonbiako Nasa herriaren diplomatura”** izeneko atala jarri dugu abian, bertan diplomaturaren nondik-norakoak azaldu dira, kronikak estekatu dira eta klaseetan erabilitako materialak zintzilikatu dira.
- **“Garabide” atala berrantolatu** dugu, zehazki saiatu gara “Nor gara” eta “Gure lana” ataletako informazioa argiago ematen.
- **“Albisteak” atalean** urtean zehar aurrera eramandako proiektuen eta lortutako aliantzen berri emateaz gain **zenbait proiektu nabarmenduren kontakizunen bildumak egin dira**: TOSEPAN kooperatiba taldeko hizkuntza planaren 3 kronikak, Caucako diplomaturaren 5 kronikak eta Aditu Ikastaroaren kronikak irailetik abendura bi astetik behin idatziz eta bideo formatuan.

• Webguneak goranzko joera mantendu du eta 2017 urtean inoizko emaitza onenak jaso ondoren 2018an hobetu ditu. Hona hemen hainbat xehetasun:

■ Webgunera izandako bisita kopurua 30.291 izan da aurten, aurreko urtean baino %40 gehiago. Beraz, azken bi urteetan %68,32 hazi da bisita kopurua. Hilabeteka datuei erreparatuta Aditu Ikastaro garaian, irailetik abendura, izan ditu bisita gehien, guztira 13.115. Dena den, nabarmentzekoa da epe horretatik kanpo hilabeteko bisita kopurua 2.314 izan dela batz bestean, aurreko urtearekin alderatuta %46,17 egin du gora eta Aditu Ikastarotik kanpo Garabideren lana bistartzeko apustuari erantzuten dio.

■ Webguneko atalei erreparatuta, Adituaren jarraipen blogak, “nor gara” eta “bideoak” atalek eta Allartean blogak jaso dituzte bisita gehien.

■ Erabiltzaileen jatorria oso zatikatuta dago. Euskal Herriatik hasita, %12 Bilbotik iritsi dira, %11 Donostiatik, %7 Arrasatetik, %6 Gasteiztik eta %3 Iruñetik. Euskal Herriatik kanpoko erabiltzaileen artean %4 Parisetik eta beste %4 Madriletik iritsi dira, %2

Bartzelonatik eta, azkenik, %2 bai Mexiko, Guatemala eta Ekuadorretik.

■ Webgunea kontsultatzeko **gailuen artean erabiltzaileen %67a mahai-gaineko ordenagailutik** konektatu da, %30 mugikorretik eta %3 tabletetik.

• “Aditu Ikastaroaren jarraipen bloga”ren bidez ikastaro honen jarraipena egin du Uxue Ruiz Garabideko praktikariak eta bertan Adituaren barne begiradaz gain Adituan komunikabideetan izandako agerpenen bilduma egin du.

• **Sare sozialak:** Twitter eta Facebooken egindako argitalpen kopurua nabarmen hazi zen aurreko urtean eta 2018an apustu horri eutsi diogu. Hori dela eta, **webgunera sare sozialen bidez heltzen den bisitarien kopurua %15** inguruan mantentzea lortu dugu. Bi sare sozialetan **erabiliena Twitter da** (sare sozialetako bisiten %62), aurreko urteetan bezala, baina Facebooken erabilerak ere gora egiten jarraitu du (sare sozialetako bisiten %38). Aurreko urteetan bezala, **Facebookeko erabiltzaileek denbora bikoitza pasatzen dute webgunean** Twitterrekoekin alderatuta.



2018an ikus-entzunezko dezente ekoiztu da.

▪ **Argiaren Plaza!** Proiektuan parte hartzen hasi ginen 2018an eta horri esker, besteak beste, Garabideren webgunera beste webgune batetik berbideratuta ailegatzen diren erabiltzaileen kopuruak %3tik %9ra egin du gora.

▪ **Aditu Ikastaroaren jarraipenerako ikus-entzunezkoak** (Ane Zuazubiskarrek eta Markel Bazanbidek eginak): aurretik aipatutako bi astez behineko laburpen pilulez gain, honako ikus-entzunezko hauek ekoitzi dira:

▪ **Aditu Ikastaroan parte hartu duen hizkuntza komunitate bakoitzeko sentsibilizazio bideo labur bat**, euren hizkuntza aktibismoan laguntzeko.

▪ **“Hizkuntzaldia: mintzairatik mintzairako hegaldia”** Adituaren itxiera ekitaldiko bideoa (Webgunean eta gure Youtube kontuan zintzilikatuta).

• **“Mai da bai (eta ezetzik ez dago)”** (egileak: Anne Baskaran, Imanol Eppherre eta

Eider Ballina) maputxeen mapuzugun hizkuntzaren biziberritzea biltzen duen ikus-entzunezkoaren aurre-estreinaldia 2018ko udan egin zen Gasteizen, Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen Topaketan (HIGA), eta **estreinaldia Biarritzen egin zen irailean**, Festival de Biarritz Amérique Latine **zinema jaialdiaren baitan**. Horrez gain, Barañain, Oiartzun, Orio, Aramaio eta Anoetan egin ziren proiektzioak Euskal Herrian eta Wallmapun, maputxeen lurretan, Ficwallmapu zinema indigena jaialdian, Santiagon, Valdivian, Concepcionen, Temucon eta Barilothen. Ozeanoaren bi aldeetan oso harrera ona izan du film laburrak.

• **Buletina:** 2 bidali dira (apirila eta uztailan) eta e-mailez zabaldu zaie Garabideko bazkideei, harpidedunei eta pertsona zein entitate laguntzaileei.

Mai da bai eta ezetzik ez dago laburmetraiko irudia



Kanpo komunikabideak

Honakoa da 2018. urtean komunikabide mota ezberdinetan -egunkariak, aldizkariak, telebistak, ak, komunikabide digitalak eta erakundeen web guneak- jaso dugun erregistro kopurua -erregistroak, batez ere, internet-etik jasotzen ditugu eta izango dira hainbat eskualdetan argitaratutako berriak eta jaso ez ditugunak: **99 komunikabideetan guztira 207 agerpen jaso ditugu.**

Datu horiek 2017koekin -59 komunikabideetan 95 agerpen- alderatuz gero, egin den jauzia- ren berri ematen digute. Jauzi egin ahal izateko 2 dira funtsezko faktoreak: 3 hilabetez ADITU ikastaroa eta, bere baitan, bisita didaktiko eta sentsibilizazio ekimen ugari -52 ekimen guztira- antolatuta izana batetik, eta bestetik, Garabidek komunikazio lanetan egin duen ahalegina.

Jasotako 207 agerpenak honela bana-

tzen dira **komunikabide motaren arabera:**

- Egunkariak: **58** agerpen (**16** komunikabideetan).
- Aldizkariak: **12** agerpen (**5** komunikabideetan).
- Telebistak: **8** agerpen (**3** komunikabideetan).
- ak: **46** agerpen (**14** komunikabideetan).
- Komunikabide digitalak: **50** agerpen (**35** komunikabideetan).
- Erakundeen webguneak: **33** agerpen (**26** komunikabideetan).

Agerpenen inguruan honakoa azpimarra daiteke: Radio Euskadiko 2 programatan, **“Graffiti”** eta **“La casa de la palabra”**, hiru hilabetez asteroko kolaborazioa egin izana. Graffitiren kasuan, 12 astetan Adituan parte hartu duten hizkuntza komunitate guztien ordezkariak hartu dute parte.



Balantze ekonomikoa

Sarrerak

- Diru-laguntza lehiakorak..... 355.775,72€
- Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta 128.005,27€
- **Guztira..... 483.780,99€**

Gastuak

- Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa IV 239.176,11€
- Bidaide programa: hizkuntz komunitateekiko lankidetzak proiektuak.....41.430,44€
- Hegoko diplomaturak 136.534,55€
- Administrazioa..... 12.237,80€
- Koordinazioa 30.593,50€
- Zabalkundea 24.476,51€
- **Guztira..... 484.448,91€**

Erakunde babesle eta laguntzaileak

Azken urteotako lan instituzionalari esker, udal, enpresa eta erakunde desberdinen babesla lortu du Garabidek. Beharrezko sostengu ekonomikoaz gain, babes instituzionala eta herrien arteko esperientzia elkartrukerako giharra eskaintzen digu indartzen jarraitzen jarraitu beharreko sare honek. 2018an **ahalegin handiena eremu instituzionalean** egin da eta emaitzak eman ditu, **Anoetako udala, Aurten Bai, Emun eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak** batu dira gure babesle sarera eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** ohiko diru-laguntzen deialdian lortu da Kolonbiako Caucan "Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta"

ikastaroaren bigarren edizioa egin ahal izateko finantziarioa. GARABIDEk, 2018. urtean **27 entitate babesle** izan ditu, aurreko urtean baino 4 gehiago. **Entitate laguntzaileei**

dagokionez, berriz, **61 izan dira** GARABIDEri eta bere ekimenei laguntza eman dioten era guztietako entitateak. Sare hau estrategiko bilakatu da Garabiderentzat bai finantzaziorako, baita Euskal Herriara begirako sentsibilizazio ekintzetarako ere eta, oro har, hizkuntza gutxituen arteko esperientzia trukeak, hau da **hizkuntza lankidetzak berak, euskal eragileek agenda eta plan estrategikoetan tokia izan dezan.** Hona hemen 2018ko Garabideren **erakunde babesleen** –ekarpen ekonomikoa egin dutenak- eta **erakunde laguntzaileen** diruz bestelako ekarpena egin dutenak zerrenda. **Bihoakie guztiei gure esker ona.**

Garabideko lehendakari Andoni Barreña Berriatuako alkatearekin lankidetzak hitzarmena sinatzen



Erakunde babesleak





Errenteriako Udalak



eskoriatza udala

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA D
COOPERACIÓN PAI
EL DESARROLLOgipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALESGipuzkoako
Foru Aldundia

Irizar

OIARTZUNGO
UDALA

ORIKO UDALA

Otxandioko
Udala

Usurbilgo Udala

Erakunde laguntzaileak:





943 25 03 97
688 63 24 33
garabide@garabide.eus
www.garabide.eus

/Garabide.eus

@Garabide

/Garabide

/Garabide Elkarte

The logo for Garabide Euskaraz features the word "garabide" in a bold, lowercase, sans-serif font. Below it, the word "euskaraz" is written in a stylized, lowercase font where the letters are interconnected. The entire logo is rendered in a light green color with a white outline.